ASMOZ TA JAKITEZ

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

1999 iraila/septiembre/septembre
Nº 93 zenb.

# Euskonews & Media, urtebete sarean

Interneten nabaritu zitekeen hutsunea betetzeko asmotan plazaratu zuen Eusko Ikaskuntzak 1998ko irailean *Euskonews & Media* astekaria. Sortu zenetik urte bat igaro denean, hazitzen joan den nazioarteko irakurlegoak egiaztatu du Elkarteak sumatzen zuena, alegia bazela sarean euskal zientzia eta kulturaren inguruko dibulgazio argitalpen baten beharra. Eta berrespen honek eraginda ekin dio EI-k, hain zuen, bere Mediatekatik ekoizturiko aldizkari elektronikoaren sendotze aroari, lehenik eta behin, egindakoaren gogoeta egin nahi izan badu ere. Izan ere, orain arte landutako ale guztiak -berrogeita lau osotarabiltzen dituen CD-ROMa kaleratu zuen urteurrenarekin bat eginez, aldi berean bere bigarren urteko lehen zenbakia jendaurrean aurkeztu zuelarik.

Hamabi hilabete pasa ondoren aldaketei lekua egiteko sasoian egon zitekeelakoan, agerkaria hainbat berrikuntzez hornitzea erabaki zuen talde arduradunak, euskal kantutegiaren abestiak entzuteko aukera ematen duen atal berriaz edo kultur lehiaketa bati tartea ematen dionaz kasu. Hala ere, asteoroko elkarrizketak eta *"Gaiak"* izenburuko sailean argitaratutiko artikuluek orrialdeen zati nagusia izaten jarraituko dute.

CD-ROMari da-

sistema txertatu zaio, bai eta soinudun artxiboak -buruturiko irrati saioak, adibidez- aditu ahal izateko tresnak ere. Bilduma honen bitartez, paregabeko materiala ipintzen du Eusko Ikaskuntzak ikertzaile eta orohar irakur-




**Un CD-ROM**

*recoge los 44 números del semanario Euskonews & Media publicados en su primer año de vida. En la parte inferior, una imagen del público asistente a la presentación del CD y de las novedades de la revista.*

## La revista registró más de 300.000 accesos en su primer año de publicación



Alrededor de 300 artículos y 44 entrevistas a personas relacionadas con la ciencia y la cultura vasca han nutrido las páginas del semanario *Euskonews & Media* a lo largo de los doce meses transcurridos desde su puesta en funcionamiento. El público de la revista ha podido, pues, escoger entre un amplio abanico de lecturas, a tenor sobre todo de la variedad de cuestiones abordadas en las páginas de la publicación.

Si bien han sido los temas de Historia los más tratados en las secciones de *E&M*, no menos protagonismo han tenido disciplinas como la Antropología, la Sociología, y la Ciencia y Tecnología. Las Artes Plásticas, la Lengua, la Literatura, la Música, los Medios de Comunicación, el Cine y el Teatro han tenido también un amplio espacio, así como, aunque en menor medida, el Derecho, el Medio Ambiente, la Biología, la Economía y la Educación.

En total, los lectores de *Euskonews & Media* han entrado en 303.600 ocasiones a las páginas de esta revista, que cuenta actualmente 1.700 suscriptores y, además, registra un promedio semanal de 600 visitantes no suscriptores.

**Público internacional**

La mitad de los lectores procede del Estado Español (40% de la Comunidad Autónoma Vasca, 25% de Navarra, 20% de las Universidades integradas en Rediris y 15% de otros puntos). En un 25% del total, el origen de los visitantes se ha situado durante este primer año en Estados Unidos; en un 15% en Sudamérica (la mayor parte en Argentina, por delante de Uruguay, Méjico, Brasil y Chile); y en un 8% en Europa (principalmente en Francia, Gran Bretaña, seguidos de países como Bélgica y Dinamarca). Completa el cuadro estadístico un elenco en el que se incluyen puntos geográficos como Japón, Arabia Saudí, Uganda, Australia o China, entre otros.

EUSKO IKASKUNTZA INTERNET

Web general: **suse00.su.ehu.es**
Euskonews & Media: **www.euskonews.com**

**NOUVEAUX MEMBRES**

**Eusko Ikaskuntza.** BULLETIN D'INSCRIPTION

Adhérer à Eusko Ikaskuntza c'est la posibilité de rencontrer les meilleurs moyens pour travailler pour notre culture. Remplir le coupon joint et l'envoyer dans un des bureaux de la Société. Nous rentrerons rapidement en contact avec vous.

Nom.......................Prénom.......................
Adresse.......................Code Postal.......................
Ville.......................Téléphone.......................

**Eusko Ikaskuntza:** FACULTE PLURIDISCIPLINAIRE. 29-31, cours du Comte de Cabarrus. 64100 BAIONA.

**Cotisations:** 200 Frs. pour les membres ordinaires. 50 Frs. pour les membres étudiants.

**Les Sections d'EI-SEV:** anthropologie, arts plastiques, sciences naturelles, sciences économiques, cinématographie, droit, education, folklore, his-toire, langue/littérature, moyens de communication, musique, préhistoire/archéologie, sciences médicales, sciences physiques et mathématiques



## La Société d'Etudes Basques participera au projet "Kantuketan"

Le vice président pour Iparralde, d'Eusko Ikaskuntza-Société d'Etudes des Basques, Jean Fagoaga, et le directeur de l'Institut Culturel Basque-Euskal Kultur Erakundea, Pantxoa Etchegoin, ont fixé les bases d'une étroite collaboration, en signant une convention qui vient renforcer les relations, déjà existantes, entre les deux institutions. La signature a eu lieu le 29 juin dernier, dans les Bureaux de la Société à la Faculté Pluridisciplinaire de Bayonne. En tenant compte des spécificités de chaque institution, les deux organismes participeront dans des projets communs: conférences, colloques, recherches etc... et plus précisément autour du projet *"Kantuketan"*, qui concerne des travaux de recherches sur la musique et le chant. Une exposition est prévue pour l'an 2000.

## Doping-a, kirola eta osasunari buruzko jardunaldiak Donostian

Gaurkotasun handiko gaiak jorratuko dituzte *"Osasuna eta Gizartea"* izenburupean Eusko Ikaskuntzak burutuko dituen lehenbiziko jardunaldietako eskuhartzaileek. Izan ere, doping-a, kirola eta osasunaren inguruko hainbat aditu biltaraziko ditu urriaren 22an Donostian garatuko den egitarauak.

Goizeko 10etan emango zaio hasera, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria den Juan José Goiriena de Gandariasek egingo duen aurkezpenarekin. Ondoren Consejo Superior de Deportes-eko kide den Cecilia Rodríguezek hartuko du hitza, antidoping kontrolaren berrikuntzei buruzko bere ikerketa ezagutarazteko. Jendaurreko eztabaidari ekin baino lehen, doping-ak federazio-kiroletan eragindako arazoak aztertuko ditu José María Odriozola Biokimikako katedradunak.

Eguerdiko 12etan hasiko da hitzaldien bigarren txanda, fisiologian aditua den José Manuel González Aramendik hitz egingo duelarik, kirol-errendimendua hobetzeko doping-aren ordez dauden neurriei buruz. Kirol kazetari batena izango da irakurriko den azkeneko txostena, doping-a eta komunikabideen inguruan Iñaki de Mugikak aurkeztuko duena hain zuzen. Beste eztabaida saio bat ere izango da programaren amaieran.

**Barriola doktoreari omenaldia**

Lehenbiziko jardunaldi hauek tarte berezi bat izango dute EI-ko kide izandako pertsona baten lana goraipatzeko, alegia bere bizitzan zehar osasuna eta gizartearekin hain lotura handia erakutsi zuen Ignacio María Barriola Irigoyenena, omenaldi bat eskainiko baitzaio arratsaldeko 4etatik aurrera.

Aurkezpen batekin hasiko da ekitaldia eta bertan haren ekarpena ongi ezagutzen duten lau pertsonen hausnarketak entzun ahal izango dira. Barriolaren kultura jarduerei buruz mintzatuko da J. A. Garmendia EAE-ko kidea, J. L. de la Cuesta EHU-ko Donostiako campuseko errektoreordea baino lehen. "Unibertsitatea Gipuzkoan" izenburuko hitzaldia emango du azken honek. Omenduaren medikuntza-eginkizunen errepasoa egingo du J. M. Urkia EHU-ko Medikuntzaren Hitoriako irakasleak, P. Gorrotxategi EI-ko Medikuntza Saileko lehendakariak berriz Akademia ibiltarian Barriolak izan zuen partaidetzaz hitz egingo duelarik.

## Elikadura eta osasunari buruzko lanak argitaratuko ditu EI-k

Eusko Ikaskuntzaren Bilboko egoitzak hartuko ditu, urriaren 8 eta 9an, "Giza populazioaren elikadura, nutrizioa eta osasuna" izenburupean Antropologia-Etnografia Sailak antolaturiko jardunaldiak. Txosten nagusiez gain, hainbat komunikazio ere entzun ahal izango dira egitarau honen barne, guztiak Elkarteak prestatuko duen liburuki monografiko batean argitaratuko direlarik. Irakasle, ikertzaile eta profesionalei bereziki zuzendurik, unibertsitate ikasleei ere eskaintzen zaie entzule bezala esku hartzeko aukera, kreditu gisa balioztatzeko izapideak egin ahal izango dituztelarik.

## Becas de las Secciones para participar en el programa Jakitez

Un miembro de cada Sección científica de Eusko Ikaskuntza podrá beneficiarse de las becas que la Sociedad destinará este año a la participación en el programa "Jakitez" para la formación de especialistas universitarios en Estudios Vascos, cuya cuarta edición, con un total de 255 horas de clase a cargo de un centenar de profesores, se desarrollará durante el curso académico 1999-2000 en las aulas de la Universidad Pública de Navarra. Efectuada la selección de los candidatos, los alumnos admitidos podrán formalizar sus matrículas entre los días 4 y 8 de octubre.

# Egutegia Calendario Agenda

*Irailaren 30era arte*
**Urrutiko masterrak. Izen emate epeak**
Irailaren 30era arte dago irekita izena emateko epea Ingurugiro Zuzenbidean-MIDA, Nazioarteko Merkataritzan-MICI eta Europar Batasuneko Zuzenbidea eta Ekonomian-MIDEC Elkarreraginezko Urrutiko Masterretan datorren ikasturtean esku hartzeko. Matrikulazioa urriaren 1a eta 15a arteko egunetan egingo da.

*Urriaren 30era arte*
**Eusko Ikaskuntza eta Baionako hiriaren Sariak**
Urriaren bukaera bitartean aurkez daitezke Elkarteak Baionako Udalarekin batera aurten deituriko sarietarako hautagaitzak. Osotara sei donari sortu dituzte bi erakundeok. Alde batetik *"Euskal Kultura"* izenburu daramatzaten biak, bata (20 000 libera) zientzia edo kultur lan bat obratzen ari den edota unibertsitate tesi bat lantzen ari den egile bat lagunduko duena eta bestea (2000 L. eta oroitzapen bat) Iparraldean euskal kultura eta zientziaren alde ainitz egin duen pertsona bat ohoratuko duena. Bestalde, Iparraldeko bizimoduaren inguruko dokumentu bideoen egileak lagunduko dituzten beste lau sari emango dira, bi ofiziale sailean (10 000 eta 5000 libera) eta beste bi ez ofizialean (10 000 eta 5000 L).

## Ayudas a la investigación

Dirigidas a miembros de Eusko Ikaskuntza, pueden solicitarse a través de los impresos normalizados disponibles en todas las Oficinas de la Sociedad. El plazo de presentación de proyectos finaliza el próximo día **30 de septiembre.** La cuantía de las ayudas será determinada por la Junta Permanente.

**Duración**
El trabajo propuesto o sus fases de ejecución tendrán una duración máxima de un año (del 1 de enero al 15 de diciembre). Los promotores de ideas con desarrollo plurianual deberán presentar cada ejercicio la memoria correspondiente a la parte ejecutada.

**Prioridades**
Entre los proyectos presentados, se dará prioridad a los siguientes:

- -Trabajos colectivos, fnente a los individuales.
- -Aquéllos cuyas líneas de investigación hayan sido establecidos como preferentes por la Sección.
- -Trabajos de ámbito de actuación supraterritorial, frente a los que afecten a un único territorio.

 La Sociedad de Estudios Vascos fue fundada en 1918 por las Diputaciones de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra

# Ainhoa Nieva bazkideak eskuratu du Elkartearen Nafarroako Bulegoko beka



Lekuz aldatzearekin batera egoitza berrian hainbat lan burutzeko beka deialdia zabaldu zuen udapartean Eusko Ikaskuntzaren Nafarroako Bulegoak eta aurkezturiko hamabi hautagaitzak aztertu ondoren, Ainhoa Nieva Zardoya bazkide iruñarra suertatu da aukeratua laguntza jasotzeko. Nafarroako Unibertsitate Publikoan Soziologian lizentziatua, esparru honekin loturiko hainbat enpresetarako lan egin izan du. Zientzia Politikoetako ikaslea dugu UNED-en, enpresa antolaketaren inguruko formakuntza osagarri zabala duelarik.

# Entrega del Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral a Eduardo Chillida

El Palacio Miramar de San Sebastián acogerá, el viernes 15 de octubre, el acto de entrega del Premio de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales, que distingue anualmente a la persona con el curriculum más destacado de Euskal Herria en las citadas áreas y que en su quinta edición ha sido otorgado al escultor Eduardo Chillida. La ceremonia estará presidida por el lehendakari del Gobierno Vasco, Juan José Ibarretxe, y comenzará a las 18.30 h.

# Atapuercako indusketak ikustera joan ziren Arkeologia Saileko kideek

Uda orotan indusketa lanetan ari diren aztarnategietarako bisitaldiak prestatu ohi ditu Eusko Ikaskuntzaren Historiaurrea-Arkeologia Sailak. Ohitura horri jarraituz, Atapuercakoa ikuskatzeko txangoa burutu zuten atal horretako kideek joan den uztailean, hango ondarearen interes berezia dela eta beste hainbat esparruetako bazkideak ere bertaratu zirelarik, hirurogeiren bat lagunetako taldea osatuz.

Ezohiko gidaria izan zuten denek ikustaldi horretan, izan ere, alboko irudietan ikus daitekeenez, indusketaren zuzendaria den Juan Luis Arsuaga paleontologoa arduratu zen joandakoei bertan burutzen ari diren inguruko azalpenak emateaz. Eguneko ibilbidearen barne, Burgoseko Las Huelgas monastegia eta San Juan de Ortegako santutegia ere bisitatu ahal izan zuten.

### Uda eskaintza zabala

Arrakastatsuak suertatu dira ere udan garaturiko beste hainbat egitarau, *Oñatiko Unibertsitatea* izenburupeko ikastaroa kasu. Uztailaren 15 eta 25a bitartean burutu zen gipuzkoar herrian aditu ugari biltarazi zituen Zuzenbidearen inguruko programa hau.

Nabaria izan da ere, halaber, hilabete hauetan ikusgai izan den Euskal Eskolari buruzko erakusketa bisitatu dutenen kopurua. Donostiako Miramar Jauregian kokaturik, historia duten eskola-materialen bilduma txiki bat ikusteko aukera luzatu dio Euskal Herriko hezkuntzaren oroimena hobeto ezagutzen interesaturik dagoen jende guztiari, Eskola Museo bat sortzeko xedearekin Elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko proiektuaren lehen zehapena izan dela ere.

Bestalde, euskarri elektronikoa duen ekoizpena kontuan hartzen badugu, aipatu beharra dago ere *Euskonews & Media*-ren uda honetako irakurlego handia, 20.000 sarrera inguru zenbatu baitira Donejakue Bideari buruzko abuztuko ale monografikoan.







**En la imagen**

*central, el paleontólogo Juan Luis Arsuaga, dando a los visitantes detalles acer - ca de la excavación.*

## Beka

Laguntzaren helburua Barandiaran Fundazioaren berezko lanetan aritzea da, ondoko oinarri hauen arabera:

**Hautagaiak**

Kontutan hartuko dira:
- -Goi-titulatua izatea.
- -Informatikaren inguruko ezagupidetza.
- -Hizkuntzak: euskara, gaztelera; frantsesa edota ingelera.
- -Euskal gaietarako zaletasuna.

**Iraupena eta zenbatekoa**

Lanaren iraupena sei hilabetekoa izango da, beste horrenbeste aldirako luzatu ahal izango delarik. Bekadunak 600.000 pezetako dirulaguntza gordina jasoko du.

**Dokumentazioa**

Interesatuek beren eskaera-eskutitzak, curriculumarekin batera, Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegotara bidali beharko dituzte 1999ko irailaren 30a baino lehen.

# Curso intensivo sobre creación y gestión de centros documentales

Eusko Ikaskuntza y el Instituto de Historia de la Ciencia y Documentación López Piñero (Universitat de Valencia-CSIC) han diseñado un curso dirigido a licenciados de diversas disciplinas con el que se pretende introducir a los participantes en la concepción, organización y administración de bibliotecas científicas y centros de documentación.

### Clases teóricas y prácticas

La parte teórica del programa, cuyo plazo de inscripción permanece abierto, se desarrollará en el salón de actos del Archivo Foral de Bizkaia, y las clases prácticas tendrán lugar en dependencias de la Universidad del País Vasco-Campus de Leioa. El curso, que permitirá, igualmente, conocer los sistemas automatizados de gestión de las tareas documentales y las técnicas básicas para la evaluación de los centros, se impartirá en horario de mañana y tarde entre los días 15 y 19 de noviembre, ambos incluidos. Dirigirá el curso Rafael Aleixandre, profesor del departamento de Historia de la Ciencia y Documentación de la Universidad de Valencia. Participarán como docentes Lluis M. Anglada i Ferrer, director del Consorcio de Bibliotecas de Cataluña; J. Manuel Rodríguez i Gairín (Universitat Politécnica de Catalunya); y Elías Sanz (Universidad Carlos III de Madrid).

# Hommage à Eugène Goyheneche

Le samedi 2 octobre 1999, à la salle Lapurdi d'Ustaritz (Iparralde), un hommage à Eugène Goyheneche sera organisé par Eusko Ikaskuntza à l'occasion du 10ème anniversaire de la mort de ce grand historien. Une vingtaine d'intervenants se succéderont pour honorer sa mémoire. Le maire d'Ustaritz sera également présent pour rappeler les mérites de cet uztariztar émérite, lauréat du Prix Manuel Lekuona décerné par Eusko Ikaskuntza en 1989. La place qu'occupe Eugène Goyheneche parmi les grands historiens du Pays Basque est originale à bien des égards.



**Jean-Claude Larronde**

*bazkidea dugu Eugène Goyhenecheri buruzko jardunaldiaren koordinatzailea.*

En effet, il n'a pas été seulement un médiéviste remarquable, mais aussi, dès sa plus tendre jeunesse, c'est comme militant au service de son pays qu'il a tout naturellement été amené à s'intéresser à l'histoire contemporaine. C'est dans le même esprit qu'il prend conscience de la nécessité et de l'importance d'une bonne connaissance historique globale du passé du Pays Basque pour tenter d'appréhender son présent, et dans la mesure du possible de dégager des lignes directrices pour l'avenir.

Il savait à quel point l'histoire est tout à fait essentielle pour la permanence de l'identité basque. Si l'euskera est la principale caractéristique de peuple basque, l'histoire en est la mémoire; n'est-ce pas ce qui lui donne conscience de sa personnalité particulière? C'est ce que s'est efforcé de démontrer Eugène Goyheneche tout au long de sa vie.

De la richesse exceptionnelle de la production d'Eugène Goyheneche (plus de 150 titres de livres, brochures et articles) on retiendra surtout sa thèse soutenue en 1949 à la prestigieuse Ecole des Chartes: Bayonne et la région bayonnaise au Moyen Age (XIIème-XVème siècles). Etudes d'histoire économique et sociale (éditée par l'Université du Pays Basque en 1990). La modernité de la conception qui inspire cette thèse est étonnante pour l'époque: histoire globale à la façon de l'Ecole des "Annales" qui rompt avec la conception de l'histoire événementielle.

Avec sa seconde thèse (Bordeaux, 1966), il aborde l'Onomastique du Nord du Pays Basque (XIème-XVème siècles); il y rassemble par province et par paroisse les toponymes et les anthroponymes dispersés dans les rares documents médiévaux relatifs au Pays Basque. La publication de Notre terre basque en 1961 a été pour beaucoup une révélation. C'était bien plus qu'un bon ouvrage de vulgarisation. C'était –à y bien réfléchir– la première synthèse, le premier outil pédagogique de valeur pour les habitants d'Iparralde en quête d'une identité passée jusqu'alors sous silence. Ces "notions de géographie, histoire et culture populaire" destinées d'abord aux maîtres d'écoles et aux élèves ont eu un impact fondamental. Outre le scientifique rigoureux, ce livre révèle aussi les remarquables qualités d'enseignant d'Eugène Goyheneche.

> *"Il savait à quel point l'histoire est tout à fait essentielle pour la permanence de l'identité basque"*

**Référence en matière d'histoire**

Mais si l'on ne devait retenir qu'un seul titre dans son œuvre, ce serait sans doute Le Pays Basque. Soule. Labourd. Basse-Navarre (1979) qui reviendrait le plus souvent. Ce fort volume de 680 pages constitue incontestablement une somme, "le" livre de référence en matière d'histoire d'Iparralde. Cette histoire est toujours éclairée par l'histoire du Pays Basque en son entier, témoignant ainsi des connaissances encyclopédiques qu'avait Eugène Goyheneche de l'histoire de toutes les provinces à toutes les époques.

Etonnante aussi la curiosité insatiable pour des thèmes aussi variés que les relations de Bayonne et Pampelune au Moyen-Age, la pêche à la baleine, l'histoire de son village natal Ustaritz, la Révolution Française en Pays Basque et l'action des frères Garat, Augustin Chaho et les guerres carlistes.

C'est en définitive un immense historien qui alliait la rigueur scientifique à la générosité de l'enseignant partageant son savoir avec tous qu'Eusko Ikaskuntza et la municipalité d'Ustaritz s'apprêtent à honorer le samedi 2 octobre prochain.

## El-ko kideen liburuak

**"Euzkadiko Gudotontzia. La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi (1936-39)". Juan Pardo San Gil.**

La Marina Auxiliar fue una de las unidades militares más peculiares, curiosas y peor conocidas de las que tomaron parte en la Guerra Civil. Su dependencia exclusiva del Gobierno Vasco, surgido durante la contienda, le dio además una gran significación política. La singularidad de este trabajo reside en que para su elaboración se ha podido disponer de una amplísima documentación original, impresa y gráfica, en su mayor parte inédita hasta hoy. **Ed.: Museo Naval-Diputación Foral de Gipuzkoa.**



**"Los trinquetes: criterios técnico-deportivos para su construcción". Mikel Bringas.**

La estandarización de los terrenos de competición se considera una necesidad prioritaria para la tecnificación de la pelota vasca y se entiende, en este sentido, que la riqueza espacial del trinquete exige una especial homogeneidad en sus características, dado que el más mínimo detalle puede modificar sustancialmente el tipo de juego. El volumen pretende aportar a los responsables de su diseño una referencia sobre las instalaciones ya existentes y consejos prácticos para futuros proyectos. **Ed.: Mikel Bringas.**




### Liburuak-Libros

*"El-ko kideen liburuak"* atalak Elkartearen Sailetako kideek Eusko Ikaskuntzatik kanpo argitaraturiko lanen berri ematen du hilabetero. Beraz, egile edo argitaltxe bakoitzarekin jarri beharra dute harremanetan aleak eskuratzeko edo haien inguruko informazioa jasotzeko interesa dutenek.

*La sección "El-ko kideen liburuak" da cuenta de los trabajos publicados en otras editoriales por miembros de las Secciones de El-SEV. Los interesados en adquirir u obtener más información sobre estas publicaciones deberán, por tanto, ponerse en contacto con los respectivos autores o firmas editoras.*

## HISTORIA LOCAL

**•Treinta comunicaciones para las VI Jornadas.**

Un total de 37 investigadores, a título individual o integrados en equipos de estudio, han presentado trabajos para su inclusión en el programa de las próximas Jornadas de Historia Local, que estarán dedicadas en su sexta edición al trabajo en Vasconia y que tendrán lugar a mediados de diciembre en el Palacio Miramar de San Sebastián. Tanto los sectores laborales como la propia situación de los trabajadores en Euskal Herria han experimentado intensas transformaciones durante los últimos años, transformaciones que en muchos casos continúan en curso. No obstante, lejos de limitarse al examen de la época contemporánea, se ha pretendido con la organización de este encuentro ampliar el marco cronológico de análisis hasta nuestra antigüedad, dar cabida tanto a aportaciones teóricas generales como a estudios específicos y comparativos, y abrir el programa a otras disciplinas, como la Sociología, la Medicina, el Derecho, la Arqueología, la Antropología histórica, etc. Y en este sentido han respondido a la invitación de Eusko Ikaskuntza los expertos interesados en participar en calidad de comunicantes, a tenor de la variedad de temas propuestos al comité organizador.

ASMOZ TA JAKITEZ

**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia. Internet: http://suse00.su.ehu.es. **Zuzendaria:** Josemari Velez de Mendizabal. **Zuzendari teknikoa:** Marta Guruziaga Reparaz. **Lege gordailua:** SS-1056/92. ISSN: 1133-9861. **Inprimategia:** Gertu (Oñati. Gipuzkoa). **Harpidetzak:** *Asmoz ta Jakitez* etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia.Tlfnoa. (943) 310855. Faxa: (943) 213956. E-mail: ei-sev@sk.ehu.es Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Arabako Bulegoa:** San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Tlfnoa.: (945) 231552. Faxa: (945) 148752. E-mail: eigasteiz@cempresarial.com Ordut.: 8.00-14.00/ 16.00-18.00. **Bizkaiko Bulegoa:** M. Diaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo. Tlfnoa.: (94) 4425287. Faxa: (94) 4414650. E-mail: eibilbo@cempresarial.com Ordut.: 10.00-14.00. **Nafarroako Bulegoa:** Gaztelu plaza, 43 bis-3. eta 4. D. 31001 Iruñea. Tlfnoa.: (948) 222105. Faxa: (948) 211737. E-mail: gaztelu@cempresarial.com Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Iparraldeko Bulegoa:** Baionako Sailaskotako Fakultatea. Tlfnoa. 07. 33.559529299. Faxa. 07.33.559310518. E-mail: Eusko.Ikaskuntza@univ-pau.fr Ordutegia: 9.00-12.00/ 14.00-19.00.